

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Mari Lizarazu Garmendia

*Donostia,
Gipuzkoa
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



Igeldoko Harritxulo baserrian jaioa, familia handi batean. Ama bertakoa zuen; aita Usurbilgoa. Amak arrocketan hartutako lapak saltzen zituen Donostian. Bederatzi senide ziren, eta, beharrak hartaratuta, morroi eta neskame joan ziren gehienak umetan: bederatzi urterekin Aginagara bidali zuten. Sei urte egin zituen han, eta ondoren beste sei Añorgako etxe dotore batentzat lanean. Soldaduskan Zugarramurdin egin zituen hilabete batzuk, eta estraperloan ibili zen, olioarekin. Iruñean etxeak egiten ere jardun zuen geroago. Igeldora bueltatzean baserrietako teilatuak konpontzen zituen, baita belarra moztu eta metak egin ere. Arraina dinamitarekin arrantzatu izan du, aitarekin batera. 14 urtez Kalonje sagardotegian egin zuen lana. Akelarre jatetxearen baratzean ere ibili zen elkarriketa egin baino pixka bat lehenagora arte. Aizkora apustua ere gustuko du. Ezkongabea da.

Zintak

DON-049

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-30
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Dirua ateratzeko esnea eta lapak saldu eta morroi lanetan

- **Erref:** DON-049/002
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:03:54. **Bukatu:** 00:05:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Jaiotetxeko baratzean denetarik zuten. Saltzeko gutxi izaten zuten. Behi bi zituzten, esne-behi bakarra. Guardia Zibilaren kuartelera saltzen zuten esnea, egunero-egunero 10 litro. Arroketan bildutako lapak saltzen zituen amak Donostian. Neba-arrebak gazterik irten ziren etxetik morroi edo neskame. Dirua irabazi beharra zuten.

2. Ama lapak saltzera Donostiara

- **Erref:** DON-049/003
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:05:47. **Bukatu:** 00:06:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

Arroketan bildutako lapak saltzen zituen amak Donostian. 10-12 kilotako otzara buru gainean hartuta oinez jaisten zen Parte Zaharrera.

3. Lanpernetan

- **Erref:** DON-049/004
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:06:58. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

Itsaso txarra izanez gero, lapa batzeari uzten zioten. Lanpernak ere harrapatzen zituzten, kiloak 1,5 edo 2 pezeta balio zuen eta asko batu behar zen. Gogorra izaten zen igerian jakin gabe han ibiltzea.

4. Eskola gutxi, umetatik etxetik kanpo lanera

- **Erref:** DON-049/005
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:10:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Eskolara gutxi joan zen. Euskara galarazi eta dena zen erdaraz. Maisuak egurra ematen zien, bizkarrean jotzen zituen ikasleak, animaliak bezala; infernua baino gaiztoagoa omen zen. Bederatzi urte zituela, morroi joan zen Aginagara. Neba-arrebak ere horrela ibili ziren etxetik kanpo lanean.

5. Gosea eta errotara gauez

- **Erref:** DON-049/006
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:10:02. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Aita arrantzan ere aritzen zen arroketan. Gose asko pasatu zuten. Artoa esnetan egosita jaten zuten: morokila. Aiaraino joaten ziren irin bila errotara. Astoz eta gauez joan behar izaten zuten.

6. Bederatzi urterekin morroi: Aginagan eta Añorgan seina urtez

- **Erref:** DON-049/007
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:13:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Bederatzi urterekin Aginagara (Usurbil) joan zen morroi; sei urtez ibili zen han. Baserriko lanak burutu zituen han. Handik etxera bueltatu zen, baina gosearen eraginez berriro egin behar izan zuen alde. Añorgako Belartzagoikoa baserrira joan zen, han ere beste sei urtez egon zen. Espainiako erregea zen Juan Carlos Borboikoa eta haren anaia zena han egoten ziren Donostian ikasten zutenean.

7. Morroi zegoen etxekoekin behien irabaziak erdibana

- **Erref:** DON-049/009
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:14:25. **Bukatu:** 00:15:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Añorgako Belartzagoikoa baserrira joan zen morroi. Lau behi zituzten eta esne-behien irabaziak erdibana egiten zituen nagusiarekin. Bere etxekoak ere hara joan ziren beregana. Sei urtez bertan egon ostean, hura saltzerakoan Igeldora bueltatu ziren.

8. Nagusiak etxetik bota zituenean

- **Erref:** DON-049/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko errenta 10 bat pezetakoa zen. Baina Igeldon linea elektrikoa jarri behar izan zutenean, beraien etxeko gaztainondo batzuk bota zituztenez, etxeko nagusiak etxetik bota zituzten. Pedro Mari garai hartan soldadutzan zegoen eta gutun bidez jakin zuen.

9. Soldadutzan estraperloan

- **Erref:** DON-049/012
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:17:14. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Pedro Mari gustura egon zen soldadutzan. Nafarroako Auritzen eta Zugarramurdin egon zen. Zugarramurdin zegoela ez zutenez dirurik estraperloan ibili zen olioarekin. Mugaz bestaldean olio-litroak sei ogerleko balio zituen eta Donostian 16 ogerleko. Fraidea zen olio saltzen zuena. Zugarramurditik Sarara joaten zen eta harantz pattrra eta ardoa eramaten zituen; handik bueltan, sakarina eta olio. Gaez aritzen zenez estraperloan, sarritan egunez egin behar izaten zuen lo, kapitainak bazekien zertan zebilen-eta.

10. Soldadutzan estraperloan, zerbitzutik libre

- **Erref:** DON-049/013
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:21:30. **Bukatu:** 00:23:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Soldadutzan Zugarramurdin zegoela, estraperloan aritzen zen. Gaez aritzen zenez estraperloan, sarritan egunez egin behar izaten zuen lo. Bertako baserri batean ere aritzen zen baserriko lanetan eta egunez zerbitzutik libre egoten zen, kapitainak bazekien zertan zebilen eta. Zerbitzutik libre eta nahi beste haragi janez, han etxean baino hobeto zegoela dio. Hiru hilabetez egon zen han.

11. Soldadutzan eraikuntza lanetan

- **Erref:** DON-049/014
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:23:06. **Bukatu:** 00:26:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Soldadutzan Zugarramurdin egon eta gero Iruñeara joan ziren. Han eraikuntza lanetan hasi ziren. 13 hilabetez egon ziren han. Soldadutza bukatu eta gero beste hiru hilabetez egon zen, han ondo bizi baitzen: soldata, jana...

12. Etxeak egiteko materiala eta tresnak

- **Erref:** DON-049/015
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:26:06. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak

Laburpena:

Soldadutzan Iruñeara joan zirenean, eraikuntza lanetan ibili zen. Zein material eta makina erabiltzen zituzten eta lana nola egiten zuten azaltzen du.

13. Aizkora apustua apropos galdu zuenekoa

- **Erref:** DON-049/019
- **Iraupena:** 0:05:18. **Hasi:** 00:29:24. **Bukatu:** 00:34:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Aizkora apustuan ibilitakoa da Pedro Mari. Donostiako Trinitate plazan nafar baten kontra apropos galdu zueneko apustua kontatzen du; hala ere, kostata galdu zuen. Aurkaria ezkontzekoa zen eta dirua behar zuen.

14. Aizkoran beste bati laguntzearen zigortua

- **Erref:** DON-049/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Aizkora apustuan ibilitakoa da Pedro Mari. Nafar bat zen normalean jokaturako dirua irabazten zuena. Behin hari irabazi behar ziola eta auzoko bati lagundu zion prestatzen. Apustuan besteari lagundu ziolako, bi urtez aizkoran jokatu gabe zigortu zuten.

15. Alkateari aurre eginez aizkora apustua irabazi

- **Erref:** DON-049/021

- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:37:22. **Bukatu:** 00:41:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Bi urtez aizkoran jokatu gabe zigortuta egon eta gero, alkateak esan zion bera alkate zen bitartean ez zuela saririk jasoko. Baina txapela eta 10.000 erreal irabazi zituen Olasagastirekin batera.

16. Lapak gordinik jaten zituzten

- **Erref:** DON-049/022
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:41:31. **Bukatu:** 00:42:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Itsas fauna » Beste batzuk

Laburpena:

Lapak gordinik jaten zituzten. Behin lapa gordina jateagatik tifusa harrapatuko zuela esan zion apaizak, arriskutsua zela. Baina Pedro Marik tifusa pasata zuen eta ez zion ardura.

17. Sagardoa nola egin

- **Erref:** DON-049/024
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:44:14. **Bukatu:** 00:46:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

14 urtez Kalonje sagardotegian egin zuen lan. Sagardoa nola egiten zuten azaltzen digu. Jende asko joaten zen sagardotegira.

18. Sagardotegitik arkume erre lapurtu zuten batzuek

- **Erref:** DON-049/025
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:46:03. **Bukatu:** 00:47:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Askotan sagardotegira etxetik eramaten zen jatekoa. Kalonje sagardotegian behin arkumea erretzen jarri zuten kanpoaldean eta baten batek jan zuen.

19. Sagardoa txotxean eta botilan

- **Erref:** DON-049/026
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:47:01. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Sagardoa kupeletatik zuzenean edaten zuten, txotxean. Alperrik ez galtzeko, ez sikatzeko, botilaratzen zuten eta horrela saldu.

20. Belar metak egiten

- **Erref:** DON-049/028
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:48:11. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Belar metak egiten abila zen Pedro Mari. Metak egiten bizi izandako istorio bat kontatzen digu, istripu bat tarteko.

21. Gerran harkaitz azpian ezkutatu

- **Erref:** DON-049/030
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:55:35. **Bukatu:** 00:57:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian harkaitz azpian ezkutatzen ziren arratoiak bezala. Aireplanoek soinu ikaragarria ateratzen zuten eta harkaitzaren azpitik egoten ziren begira.

22. Dinamitarekin arrantzan Guardia Zibila azaldu zenekoa

- **Erref:** DON-049/032
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:57:52. **Bukatu:** 00:59:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Itsasoa » Arrantza motak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Bere aitak dinamita erabilia arrantzatzen zuen, baita Pedro Marik berak ere. Behin, salaketa bat tarteko Guardia Zibila azaldu zitzaien.

23. Igeldo asko aldatu da

- **Erref:** DON-049/043
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:20:44. **Bukatu:** 01:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Igeldo asko aldatu da eta baita bertako bizimodua ere: baserri asko hutsik daude eta beste asko desagertu egin dira. Lehen lurrak ondo zainduta zeuden. Gari-irinarekin taloa egiten zuten, ez ogirik. Gari-jotzeak lan ikaragarria du, Aiatik ekartzen zuten makina.

24. Antzinako oheak eta koltxoiak

- **Erref:** DON-049/048
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:29:48. **Bukatu:** 01:30:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Nolako oheak eta koltxoiak zituzten, lastoarekin egindakoak. Anai-arrebek binaka egiten zuten lo.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com